

+ Datu estatistiko asko tasen bidez adierazten dira. Hain zuzen, honelakoak esaten dira: "Gipuzkoan mila biztanleko haurren heriotza-tasa 3,5ekoa da". Zer esan nahi da datu horrekin? Zergatik ez dira ehunekoak erabiltzen? Zein ezberdintasun dago tasen eta ehunekoaren bidez ematen diren balio erlatiboaren artean? Galdera horiei guztiei erantzuten ahaleginduko gara.

Tasak magnitude heterogeneoen arteko erlazioa adierazten duten balio erlatiboak dira eta erlazio horren izendatzaileak denbora-unitateak adierazten ditu.

Hau da, pertsona batzuen irakurtzeko ohiturak aztertzen baditugu irakurketa-mota kontuan hartuta, informazio hau lor dezakegu: 100 pertsona aztertu ondoren ikusten dugu 15ek komikiak irakurtzen dituztela; 45ek eleberriak; 30ek ipuinak eta 10ek olerki-liburuak. Balio horiek homogeneoak direla esaten dugu denak direlako, erreferentzia moduan hartutako kopurua barne (100 pertsona), magnitude berari buruzkoak: pertsona-kopurua. Kasu honetan, datuak ehunekoetan eman ditzakegu.
%15ek komikiak irakurtzen ditu; %35ek eleberriak; %30ek ipuinak eta %10ek olerkiak.

Baina aldi jakin batean jaiotako ume kopurua alderatu nahi badugu, denbora-unitateak gaude alderatzen eta orduan balio horiei tasa deitzen zaie.

Adibidez, 200.000 pertsona bizi den lurralde batean urtean 3.000 ume jaiotzen badira, hauxe esango dugu:

$$1.000 \text{ biztanleko jaiotza-tasa } 3.000 \times 1.000 / 200.000 = 15 \text{ da}$$
$$10.000 \text{ biztanleko jaiotza-tasa } 3.000 \times 10.000 / 200.000 = 150 \text{ da}$$

Ikusten denez tasak, ehunekoak ez bezala, erreferentzia ezberdinen arabera eman daitezke eta ohikoenak 10en anizkoitzak dira.

Hauteskunde politiko batzuetako datuak balio erlatiboaren bidez eman nahi badituzu, zer erabiliko zenuke ehunekoak ala tasak? Zergatik?

Hiri bateko bisitari kopuruaren gaineko datuak urte ezberdinetan eman nahi badituzu, ehunekoak ala tasak erabiliko zenituzke? Zergatik?

Azaldu labur ehunekoaren eta tasen arteko ezberdintasuna.

Tasak beti dira 100eko guztirakoari buruzkoak?